

Bizkaiko Pentsionisten Mugimenduak honako errebindikazio-taula prestatu du, parte hartzen duten jarrera ideologiko anitzak kontuan hartuta, oinarrizko akordioak adosten saiatzeko, gure mugimendua indartuko dutenak, mobilizatzen jarraitzeko gure helburuak lortu arte.

Proposamen irekia da; EAE eta Nafarroako pentsionisten elkarteekin landu nahi duguna, estrategia eta oinarrizko errebindikazio berberak baitauzkagu. Halaber, aniztasun eta gure independentziaren errespetutik, proposamenaren oinarrizko arloetan partaide diren Estatuko pentsionisten mugimenduekin bat egiteko tresnatzat proposatzen dugu.

Nabarmendu nahi dugu gure indar nagusienak pluraltasun eta aniztasunaren batasuna eta kontsentsua izan direla. Baita aukera politiko edo sindikalekiko autonomia ere. Horrela izaten jarraitu behar du. Ez da arraroa beraz, astelehenero gure oihua hauxe izatea: gobernuan dagoena dagoela, guk pentsioak defendituko ditugu.

Garaipen batzuk lortu ditugu, baina ez dira sendotu, ez dute Pentsioen Sistema Publikoa bermatzen, ez eta pentsio duina ere. Horregatik, mugimendua indartzeko, gure helburuen lorpenarekin ukituak diren pertsona guztiekin, mobilizazio eta kolaborazio markoak zabaldu behar ditugu.

Badakigu, egoerari buelta emateko, gizartearen sektore gehiagok gure borrokan parte hartzea, ezinbestekoa dela. Horregatik, adostu ditugun akordioak, gazte, emakume, langile, langabetu, autonomo eta ordezkatzan dituzten elkarteekin lotunea izatea proposatzen dugu. Errebindikazio-taula hau ez da dogma bat, aberastu behar dugun tresna bat baizik. Horrela, gaur egun eta etorkizunean partaide diren edo izango diren pertsonak, guztiz identifikatuta eta konprometituta senti daitezke

PENTSIO-SISTEMA PUBLIKOAREN BERME ETA DEFENTSAREN ALDE

Erakunde publikoei, pentsio duin, bidezko eta nahikoak bermatzea exijitzen diegu.

Pentsioen sistema publikoa eta bere finantzaketa bermatu.

- Kalitatezko lanpostuen sorketa
- Kotizazioen hobekuntza
- Ekitate fiskala
- Gizarte-auditoria

Pentsio publiko duin eta nahikoak bermatu

- 2011 eta 2013ko pentsio-erreformen alde atzerakoien indargabetzea
- Lan-erreformen indargabetzea
- Pentsioen errealizazio automatikoa, gutxienez benetako KPIaren arabera, legeak bermatuta
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa

- 1.200 euroko lanbide arteko soldata
 - Pentsio eta soldaten genero desberdintasunarekin bukatu.
1. Balio bereko lanpostuari, soldata bera
 2. Alarguntsa-pentsioa, oinarri erregulatzailearen % 100 izatea
- Aurre-erretiroa ez zigortzea
 - Osasun-koordinketa eta “medikamentazoaren” indargabetzea
 - Txirotasun energetikoa eraustea
 - Pentsionistoi dagozkigun erabakietan parte hartzea

Sarrera

Pentsioak eta gizarte-prestazioak ez dira botere publikoen asmakizuna, ez oparia. Hemeretzigarren mendean sortutako laguntza-elkarte gehienak langileek sortu eta mantenduak izan ziren, elkartasun fondoekin, langileak eta euren familiak dirugabe uzten zituzten gaixotasun edo istripu egoerei erantzuteko.

Beraz, Estatu Espainolean, pentsioen sistema publikoaren historia, langileriaren historiaren zati garrantzitsua da; historia hau, belaunaldi eta lurraldeen arteko elkartasun kontratu bat, estatuak abalaturakoa. Gaur eguneko pentsionistek, gure guraso eta aitona-amonen alde kotizatu dugu, baita gure pentsioaren eskubidea sendotzeko ere. Eta orain, gure atzetik datozen belaunaldiei dagokie gure eta euren pentsioei eutsi eta alde borrokatzea.

Hala ere, botere ekonomikoak sistema publikoa mantentzea zalantzan jartze jarraitzen du. Zalantzan jartze hau, bi arrazoiren menpe dago: bata, itxuraz benetakoa eta bigarrena, interesatua. Lehenengoaren arabera, datozen hamarkadetan pentsionisten kopurua izugarri haziko da, baby boom delakoaren eraginez. Baita ere, joan den mendeko hirurogei eta hirurogeita hamar urteetako jaiotzetasa handiaren eta bizi-itxaropenaren luzatzearen eraginez. Baina alde batetik, bizi-itxaropenak ez dauka eragin berbera pertsona guztiengan. Bestetik, baby boom-ek sortutako onuradun gehitzearekin ere. Ez litzateke helduko gure inguruko herrialdeek pentsioetan gastatzen duten Barne Ekoizkin Gordineko portzentajea. Bigarren arrazoaren arabera, kotizazioek esker 145 milioi euro urteko ingresatzen dira, BEGren % 9,5. Hau da, estatuan sortzen den aberastasunaren guztiatik oso kopura erakargarria, osorik edo zatika aseguru-etxeen eta bakuen eskuetan erortzen bada, fondo pribatuetan inbertitzeko, hau da, herritarren gutxiengoa gure lepotik aberasteko.

28 herrialde osatzen duten Europa Batasunaren batz besteko menpekotasun tasa (60 urtetik gorako pertsonen eta lan-adinekoen arteko erlazioa, 20 urte) 2018an %30,5koa zen; Espainiar Estatuan, aldiz, %20koa zen. Gure inguru hurbileko herrialdeekin alderatuz, Italian adibidez %35,2koa da, Grezian %34,2koa, Portugalen %33,3koa eta Frantzian %31,6koa.

Joan den mendeko laurogei urteetatik, banka, Nazioarteko Diru Funtsa eta eskuma neoliberalerako ekonomisten informeez, behin eta berriro esaten zuten, pentsioen

sistema publikoak porrot egingo zuela. Baina aurreikuspen hauen ez dira bete. Are gehiago, 30 urte geroago, sistema publikoa osasuntsu zegoen, erreserba-funts bat sortzerainoko gaitasuna erakutsiz, “pentsioen itsulapikoa” deiturikoa, 2011n ia 67.000 milioiraino helduz, nahiz eta ordurako, nazioarteko krisi ekonomikoa sortuta egon.

Problema datza, pensioen sistema publikoaren aldarrikatutako bider-ezintasuna, politika publikoek bultzatutakoa izan dela. Gizarte Segurantzaren azken aldiko erreformek, sistemaren sarreren eta gastuen arteko oreka apurtu dute, pensioen kopuruei bakarrik eraginez, gutxituz, baina finantzaketa bide berririk bilatu barik. Ondorioz, “pentsioen itsulapikora” eskua sartu dute, ia hutsik utzi arte.

Orain dela asko oinarrizko erabaki bat hartu behar zuten: Barne-produktu Gordinaren araberrako pensioen gastuaren ehunekoa, gure inguruko herrialdeen antzekoa izatea. Esate baterako, Frantzia, Italia edo Portugalen, %13koa da gutxi gorabehera, estutuko %10etik nahiko urrun.

Estatu espainoleko Gizarte Segurantzako finantzaketa-sistemaren zailtasunaren erantzulea, enplegu-politikak dira. Politika hauek, ez dira gai sistemak behar dituen kalitatezko lanpostuak sortzeko eta are gutxiago, langabeziaren tasa izugarriak leuntzeko. Politika hauentzat lana, kostu arazoa baino ez dira, gutxitu edo ezabatu behar dena, akziodunen eta enpresarioen etekinak handitzeko. Estrategia neoliberal hau, prekaritatea eta soldata baxuetan oinarritzen da, eta baita ere, lan-errenten alde baino, kapital errenten alde egiten duen fiskalitatean.

Estrategia honen ondorioz, kapitala gero eta esku gutxiagoetan metatzen da, eta hauxe da, finantza-krisi sistematiakoak sortzearen arrazoi nagusia.

Pentsio-sistemak hondoa joko zuela esaten zuten “igarleak”, euren analisietarako gastuen partidak hartzen zituzten oinarriztat, eta ez sarrerenak. Euren ustez jakintsuak diren hauek egiten dituzten analisietan, alboan uzten dute laneko produktibitatearen hazkundeak, eta honek, lanaren eta aberastasunaren banaketa erraztuko luke, asteko 32 orduko lanaldia ezarriz, eta honek, enplegua eta ondorioz kotizazioak handituko lituzke.

Instituzioen estrategia onartezina da, zeren honen bitartez, pensio-sistemaren likidazioaren eta pribatizazioaren krisia, aspirinak hartuz zuzendu nahi dute, bankaren alde ezarritako erreformen bitartez.

Erakunde publikoei, pensio duin, bidezko eta nahikoak bermatzea exijitzen diegu.

Pentsionisten mugimenduaren lehenengo errebindikazioa hauxe da, Estatu, EAE eta Nafarroako erakundeei exijitzea, adostu dezaten eta egin behar dutena egin dezaten, hiritarrek eskubidea edukitzeko, bizitza eta pensio publiko duina izateko.

Hiritarren eta kasu honetan pentsionisten eskubideak, bermatu beharko lituzketen erakundeen gaineratik daude; Oinarrizko Eskubideen 2. kapituluan, blindaje konstituzionala eskatzen dugu, albo batean utzi barik, Estatuko lurralde batzuek eskatzen duten kompetentzien transferentzia.

Gobernuak eta Estatuko Parlamentuak, ezin dute luzatu denbora gehiagoz, Europako Gutun Sozialean datozen betebeharrak gauzatzeko.

EAE eta Nafarroako erakundeek ez lituzkete saihestu behar, arlo honetan dituzten erantzukizunak. Hartu beharreko erabakiak hartu behar dituzte, Pentsio Sistema Publikoa bermatzeko eta gure errealitate sozial eta ekonomikoaren arabera, gure eskakizunak betetzeko beharrezko diren tresnak erabiliz, honela, errebindikazio-taula honetan erreklamatzeko ditugun eskubideak gauzatzeko.

Europako Gutun Sozialean eta gainontzeko nazioarteko arau eta itunek markatzen dituzten helburuak betetzea, euren erantzukizunen artean egon behar da, eta helburu hauen mesedetan jarri behar dituzte, enplegu, fiskalitate, gizarte-laguntza eta zerbitzu publikoen arloko konpetentziak.

1.BANAKETA-SISTEMA PUBLIKOA ETA BERE FINANTZAKETA BERMATU

Gure planteamenduaren arabera, pentsioen sistema publikoa bermatzeak, EAE, Nafarroa eta estatuko erakundeen gaur eguneko politika publikoen oinarritzko aldaketa eskatzen du. Kalitatezko enplegua sortuko balitz, enpresarioen kotizazioak handituko balira, iruzur fiskalaren jazarpena gauzatu balitz eta gastuak Estatuko aurrekontuetara eramango balira, ez lirateke beharko, Estatuko krediturik ez ekarpenik.

Estatuko Gobernuak berak, onartzen ditu planteamendu hauek eta erabaki batzuk, hala nola kotizazioen handitzea, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata igotzea eta prestakuntzen hobekuntza. Guzti horiek norabide onean doaz, baina hala eta guztiz ere, uste dugu, ez direla behar bestekoak eta ez dutela lan eta pentsioen erreformen indargabetzeari buruz geneuzkan usteak betetzen.

Hori dela eta, hauxe exijitzen dugu: Kalitatezko lanpostuen sorketa

- Soldaten eros ahalmena berreskuratzea. Hau, agente ekonomiko, sindikal eta instituzionalak erabaki behar dute, beraien ekintza eremuan negoziazio kolektiboa eta lan-legeria bultzatuz.
- 1.200 €ko Lanbide arteko Gutxieneko Soldata ezarri.
- Langabezia era zorrotz batean gutxitu.
- Lan prekarietatea bultzatu duten lan erreformak indargabetu.
- Lanaldiak laburtzea, kalitatezko enpleguak sortzeko. 32 lan orduko astea.

Ez dugu onartzen, lanpustu nahikorik ez dagoenik, ez eta, egongo ez denik. Lanaren produktibitatea biderkatu egin da urteetan zehar. Lehen, 100 langileren artean egiten zutena, gaur egun 20k egiten dute. Beraz, produktibitatea handitu bada eta aberastasuna ere bai, lana banatu egin behar da, eguneko lanaldia era nabarmenean gutxituz eta orokortuz, kalitatezko lanpostuak sortzeko.

Kotizazioen hobekuntza

Sistema publikoaren jasagarritasuna sarreren eta gastuen arteko orekan datzala uste dugu, hau da, aberastasuna banatzeko borondate politikoaren arabera.

Horrexetarako, gaur eguneko balantza eta 2050rako orekatzeko neurri sorta bat planteatzen dugu.

KOTITAZIO TIPOAK IGOTZEA.-Enpresarioen kotizazioak, 1982ko %27,28tik, gaur eguneko % 23,60ra pasatu dira eta garai berean langileen kuota, % 0,75 hazi da. Kotizazioen % 1ko igoerak, urtean 3.200 milioi euroko hobekuntza ekarriko luke.

KOTIZAZIOEN GUTXIENEZKO OINARRIAREN IGOERA.- Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 1.200 €ra igotzeaz batera, honek, urtean 3.500 milioi euro baino gehiago ekarriko luke.

GEHIENEO KOTIZAZIORI MUGAK KENTZEA.- Gaur egun 1.500.000 langilek, gehieneko kotizazioa baino soldata handiagoa hartzen dute, hau da, 4.030 € baino gehiago. Muga hau, Europar Batasuneko txikienetarikoa da, eta honek esan nahi du, soldatu altuek eta oso altuek ez dute dagokiena kotizatzen, ondorioz, estatuak 8.500 milioi euro gutxiago hartzen ditu.

KOTIZAZIOEN HOBARIAK, MURRIZKETAK ETA TARIFA LAUAK KENTZEA. Ez baitute enplegua sortzeko inolako eraginik erakutsi. Uste dugu, enplegu-politika aktiboek ez dutela kotizazio sozialetan oinarritu behar, baizik eta Estatuaren Aurrekontu Orokorretako partidetan.

Zenbait iturriren arabera, hau dela eta, sistema publikoak 1.800 eta 2.500 milioi gutxiago jasotzen ditu.

LANGILE AUTONOMOEN ARAUBIDE BEREZIAN BENETAKO SARREREN ARABERAKO KOTIZAZIOA, HALABER, ARAUBIDE OROKORREKO ESKUBIDEEKIN PAREKATZEA.

Ia 2.000.000 langile autonomok, nahi duten kotizazio oinarria aukeratu ahal dute, benetako sarrerak kontuan hartu gabe. Logikoa ez den aukera honek, haien kotizazioa, besteren konturako langileekin konparatuz gero, %40 txikiagoa izatea dakar.

Adituen arabera, langile autonomoen kotizazioa euren benetako sarrerekin asimilatuko balitz, Gizarte Segurantzak 7.000 milioi eurotik gora gehiago sartuko lituzke bere arketan.

GIZARTE SEGURANTZAREN ADMINISTRAZIO-GASTUAK ESTATUKO AURREKONTU OROKORRETARA ALDATZEA.

Administrazio publikoen artean, Gizarte Segurantzaren gastua da Aurrekontu Orokorretatik finantzatzen ez den bakarra, eta soilik kotizazio sozialen kontura finantzatzen jarraitzen dira. 2016rako aurreikusitako Gizarte Segurantzaren administrazio-kostuak, 3.825 milioi eurotakoa izan ziren.

Gure ustez, neurri sorta honek eta egitura-izaeradun beste neurri batzuk, hala nola, lan-erreformen indargabetzeak, iruzur eta zerga-itzurpenaren jazarpenak,

balio erantsi handiko eredu etekintsuaren aldeko apustuak,(35.000 milioi euro urteko sarrera zuzenen igoera suposatzen dutenak) BEGeko %15era hurbiltzen gaituzte. Erakunde ofizial gehienek hartzen dute kopuru hori beharrezkotzat 2050era arte pentsio sistema publikoa bermatzeko.

ENPRESEN IRUZUR FISKALAREN JAZARPENA.-Iruzur honek, beste kontuen artean , aitortu eta kotizatu gabeko ehun milaka lanordu egitea ahalbidetzen du, baita milaka lanaldi hondoratutako ekonomian ere. Kasu honetan ,etxeko langileak daude, neurri handian, emakume eta etorkinak direlarik. Askotan ez daude altan, edo ez dute kotizatzen jasotzen duten soldataren arabera eta , gainera oso duinak ez diren baldintzetan lan egiten dute.

Beharrezko bitarteko eta langileria izango dituen ikerketa-plan eraginkor eta ebaluagarri bat eskatzen dugu.

2019ko otsailean, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek diotenez, Estatuan ordaindu eta kotizatu gabeko 2,96 milioi ordu egiten dira asteko, hau da lanegun osoko 74.050 enplegu.

Publiko egunkariak 2019ko martxoaren 10ean argitaratutako informearen arabera, 2.000 milioi urteko 14.000 milioi euroko iruzurra sortzen dute(10.000milioi Gizarte Segurantzari eta 4.000 ogasun publikoari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bitartez.)

Sakoneko aldaketa politika fiskalean

Edozein kasutan, kotizazio sozialak herrialde baten presio fiskalaren parte dira. Behar izanez gero, zergek sarrera-iturria izan behar dute pentsio sistema publikoaren defizita konpentsatzeko.

Hiritarrek bizi-baldintza duinak izan ditzaten beharrezko erabakiak hartzea da edozein gobernuren lehenbiziko ardura.Horretarako , oinarritzko tresna ekitate fiskala da. Honek errentek eta patrimonioak zergen maila progresiboaren arabera tributatzea eta gaur egun errenta altuenek eta kapitalaren errentek gozatzen dituzten pribilegioekin bukatzea ahalbidetzen ditu.

Azken urteotan galdutako aurrerakortasuna berreskuratu behar da, sozietate, patrimonio eta IRPFko errenta altuenen zerga- motak handituz. Inposizio zuzenaren kalterako den zeharkako inposizioa igotzeko joera irauli behar da. Inbertsio-fondo, bitarteko finantzario eta paradisu fiskaletan babestutako zergaitzurpenarekin bukatu behar da.

2017ko presio fiskalaren datuen arabera (zergak eta gizarte-kotizazioak), politika fiskal hauekin, Estatuak BEGeko %34,5 lortu du soilik; aldiz, Euro-zonan, batzaz beste, % 41,4 izan da. EAEn presio fiskala (%531,5) eta Nafarroan (%29,8) oraindik txikiagoa da. 70.000 milioi euro urteko dira kaxa publikoetan sartzen ez den diru kopurua; 9.000 milioi, EAEn eta Nafarroan.

Halaber, diru publikoaren erabilera ebaluatzea beharrezkoa da eta hamaika subentzio eta desgrabazio fiskalen interes orokorreko izaera baloratzea ere egin behar den zerbait bada.

Aurrekontuen ikuspegitik, behar izanez gero, pentsioak ordaintzeko konpromisoari Estatuko aurrekontuek aurre egingo diotela bermatu behar da. Gizarte Segurantzaren Legeak edo bermatzen duen beste edozein lege modu argi eta garbi jazo behar duen zerbait da.

Konstituzioaren 135 artikulua eta apirilaren 27ko Aurrekontu-egonkortasuna eta Jasangarritasun Finantzarioaren 2/2012 lege organikoaren indargabetzea eskatzen dugu. Hau gastu eta sektore publikoaren finantzaketa- aukerak mugatzen dituen gastu araua baita. Gizarte Segurantzaren kontuen auditoria Azken aldiotan, zalantza larriak agertu dira "zor historikoaren" inguruan; hau da, Gizarte Segurantzaren fondoaren erabilera dela eta, ez direlako erabili pentsio publikoak bermatzeko helburu premiazkoekin erabili, baizik eta beste helburuekin.

Gizarte Segurantzaren kontuen auditoria soziala egiteko unea heldu dela uste dugu; bertan pentsionisten ahotsak lekua eduki behar du.

2. PERTSONA PENTSIONISTEN ESKUBIDEAK BERMATZEA

2-1.- 2011 ETA 2013KO ERREFORMEN ALDE ATZERAKOEN INDARGABETZEA.

2011 eta 2013an PSOE eta PPko gobernuek ezarritako legeek (lehenengoa parlamentuaren ia gehiengoak baieztatuta eta bigarrena PPEk bakarki jarrita), naiz eta zenbait neurri positibo hartu (alarguntza eta zurtasun pentsioen inguruan, zein, emakumeen eskubide eta errejimen berezien inguruan) helburu nagusia da, pentsio publikoen jaitsiera eta kapitalizazio-pribatuko sistema ezartzea. Horretarako **prestazioen mozketak eta zerbitzuen onurak jasotzeko baldintzak** gogortzen dituzte.

Zenbait adituren iritziz, erreforma hauen ezarpena, 2050-60 hamarkadarako, pentsioen balioa, gaur egungoaren erdia izango litzateke. Horrek ekarriko luke barne produktu gordinaren %3,5eko aurrezpena (38.000 milioi euro)

Ondorengo neurri hauek deuseztatzea eskatzen dugu:

2011ko pentsio-erreformatik ondorengoak indargabetzea:

- **2027 urterako, jubilazioaren atzerapen progresiboa 65 urtetik 67ra.**
- **Pentsioaren balioa kalkulatzeko epea, progresiboki, gehitzea, 15 urtetik 25 urtera, 2022rako**
- **Pentsioaren %100 kobratzeko behar den kotizazio-epea, progresiboki, gehitzea 35 urtetik 37ra, 2027rako**
- **Aurrejubilazioa, 61 urtetik 63 urtera atzeratzea eta kotizatu beharreko urteak 30tik 33ra pasatzea.**

- 63 urterekin aurre-jubilatu ezker, **oinarri erregulatzaileari ezarritako koefiziente kengarria, igotzea.**
- **Jasangarritasun Faktorea indarrean** jartzea 2027rako, bost urteroko berrikuspenarekin, bizitza-itxaropenaren arabera.

2013ko pentsio-erreformatik, ondorengoak indargabetzea

- **Jasangarritasun Faktorea edo belaunaldi-arteko doitasun faktorea** edo bizitza-itxaropena jubilazio unean. Faktore horiek erabiltzen dira **pentsioen hasierako kalkuluak** egiteko eta bost urteoro berraztertzen dira. Hasierako pentsioarengan eragin zuzena dauka, oinarri erregulatzailearen %5 eta %7arteko jaitsiera suposatzen duelarik. Bost urte ondoren, bizitzaitxaropena berraztertuko litzateke eta pentsio berriari erantsiko litzaioke jaitsiera berri bat eta horrela eten gabe. Modu horretan pentsioen murrizketa, hamar urteko epean, %5 edo %6koa izan daiteke eta 30 urte kotizatu ondoren jubilatzen den batentzat, %22ra iritsi daiteke.

- **Urteroko birbalorazio-faktorea edo urteroko birbalorazio-indizea:** Faktore honek diru publikoen osasuna adierazten du eta KPIaren erreferentea ordezkutzen du. 2014tik 2018ra ezarria izan da. Une honetan indargabetuta dago baina 2020an, berriro ere, indarrean ezar daiteke. Pentsioen urteroko birbaloraziarengan eragiten du eta defizita dagoen bitartean, pentsioen erosmen ahalmena KPIa - %0,25eko galera izango dute (%10, 20 urtetan).

Pentsioen igoera egia izango da, baldin eta, sistemaren diru-sarrerak pentsio-kopuruaren gainetik badaude. (igoeraren abiapuntua %0,25 izango da eta gehienez, KPIa + %0,5)

Nazioarteko DIRU-FUNTSAREN arabera gaur egungo jubilatuaren pentsioen %0,25eko urteroko bilbalorazioak, beraien erosmen ahalmena %30ean gutxituko luke 2050garren urterako.

2-2.- LAN PREKARIETATEA BIDERKATU DUTEN LAN-ERREFORMEN INDARGABETZEA.

2010etik hona, lan-erreformak biderkatu egin dira, lan harreman eta negoziazio kolektiboari dagokienez eta enpresari boterea gehitu eginda, langileen negoziatzeko ahalmena eta beraien eskubideak suntsitzen ziren neurrian

Erreforma laboralen ibilbideak ez du etenik izan: lan aldekotasunaren orokortzea, aldi baterako kontratuak, EREak, kanporatzearen erraztasuna, obra eta zerbitzuetako azpi-kontratazioak, enpresa berdineko hainbat arlo, kanporatzea ... neurri guzti hauek, lan-baldintzak, eten gabe gaineratu dituzte, soldata gutxitu eta osasun laborala hondatu.

Lan-hitzarmenen ultraaktibitatea ezabatu duen negoziazio kolektiboaren erreformak edo herrialdeko sektoreko hitzarmenen indargabetzeak, soldaten

maila bikoitzak eta murrizketak ekarri dituzte EAEko eta Nafarroako langileriarentzat.

Soldatek, berariazko garrantzia galtzen ari dira Barne Produktu Gordinaren barruan eta soldaten pobrezia, eten gabe handituz doa. Horrek, zaildu egiten ditu, bereziki jende gaztearengan, bizitza duin eta autonomia izateko gutxiengo baldintzak lortzea eta generoan oinarritzen diren desberdintasunak areagotzen ditu. 2016ko datuen arabera, EAEko emakumeek, urtean, 8152€ gutxiago kobratzen zuten, gizonek baino, eta Nafarroan 7573€. Soldaten arteko arrakala %24,3ko zen.

3. KPIaren ARABERAKO ETA LEGEZKO, PENTSIONEN BERBALORAZIO AUTOMATIKOA

Exijitzen dugu:

- 1.- Pentsioen erosmen ahalmena ziurtatzea. Pentsioak, urtero, legez gaurkotzea, benetako KPIaren arabera.
- 2.- KPIaren gaineratik igotzen diren soldatak eta ekoizpen hobekuntzak, zein balio erantsia, soldaten eta pensioengan eragina izan ditzatela.

4. 1.080€KO GUTXIENGO PENTSION DUINA

Estatuko Gobernu eta Parlamentuari exijitzen diegu, gauzatu dezaten, Europa Gutun Soziala sinatzerakoan hartutako konpromizua, hau da, gutxiengo pentsioa, batz besteko soldataren %60ra igotzea. Hori horrela izan dadin, exijitzen diegu, Aurrekontu-legearen bitartez, zein, berariazko Lege baten bidez, 2019ko Aurrekontuetan, beharrezko dirua ezar dezaten, aipatutako konpromizua bete dadin.

2019rako Estatuko aurrekontuetan jasotzen den Espainiar Gobernu eta Unidos-Podemosen artean izenpetutako akordioa, gauzatzea exijitzen dugu. Bertan esaten da:

“Oinarriak ezarri behar dira aurrera pausoak emateko gutxiengo pentsioa, denborarekin, batz besteko soldataren %60ra izan dadin eta pentsio ez-kontributiboak, errenta medianaren %60a Hori da Europako Gutun Sozialaren irizpideetan agertzen dena.”

Aldarrikapen hau erabat justifikatuta dago, kontuan hartzen ba ditugu, Estatuko, Erkidego Autonomoko (EAE) zein Nafarroako batz besteko soldata.

Gutxiengo pentsio kontributiboaren kasuan erabilitako arrazoi berberak tarteko, Bizkaiko Pentsionisten Mugimenduak aldarrikatzen du, **gutxiengo pentsio ez-kontributiboa 622€koa izatea** (14 ordainketa).

Halaber exijitzen diegu EAEko zein Nafarroako Instituzioei, gaur egun dituzten eskumenak baliatuz edo eta etorkizunean izan ditzaketanak erabiliz, dirusarrera

nahikoa berma ditzaten, bertako egoera sozio-ekonomikoaren arabera, aipatutako Europako Gutun Sozialak aholkatzen duen gutxiengo pentsioa lortze aldera.

Horretan oinarritzen da 2 lurraldeetako Parlamentariei aurkezten diegun proposamena, non eskatzen diegun, gaur egun RGIa edo IRPFaren bidetik osatzen diren gutxiengo pentsioak, aurrerantzean, norbanakoaren eskubidea bermatuko duen Lege batez hobetu daitezen

5.-1.200€KO LANBIDEARTEKO GUTXIENGO SOLDATA

Banaketako Pentsio Sistema Publikoaren oinarria, bereziki, lanean dauden pertsonen kotizazioengan dago; horrela suertatu zen bere garaian gure kotizazioekin eta orduko pentsioekin. Sistema hori bermatze aldera, funtsezkoa da kalitateko lana eta bidezko soldata bermatzea.

Ondorioz eta Espainiar Gobernua eta Unidos-Podemosen artean sinatutako aurrekontu- Itunaren arabera:

“Soldata hauek, langileen bizitza duina bermatu beharko dute eta haien beharrak eta familienak ziurtatu. Horrela agertzen da Europako Gutun Sozialaren oinarrietan”

“Espainiar Estatuak berretsi egingo du 1966an EUROPAR-KONTSEILUAK berrikusitako Europako Gutun Soziala”

Eskubide Sozialen EUROPAR-BATZORDEAREN gomendioetan oinarritzen den 1200€ko gutxiengo soldata aldarrikatzen dugu. Erakunde honek behin eta berriro salatu izan du Espainiar Estatuak, sinatutako Europako Gutun Sozialaren edukien urraketa.

Positiboki baloratzen dugu Estatuko Gobernuak, 2019rako gutxiengo soldata 900€ra igo izana. Igoera horrek jarraipena izan beharko luke, aipatutako 1200€tara iritsi arte.

Halaber, Erkidego Autonomoko (EAE) zein Nafarroako Instituzioei eskatzen diegu, esparru honetan ere, dagozkien neurriak hartzea, sektorearteko akordioa bultzatze aldera eta bi lurraldeetan 1200€ko lanbide arteko gutxiengo soldata ezar dezatela, Europako Gutun Sozialaren irizpideak, jarraituz.

Soldaten erosmen ahalmena berreskuratzea eta 1200€ko lanbide arteko gutxiengo soldata (1400€ko 14 ordainketa), gure aldarrikapen nagusien artean dago, izan ere, langileen bizitza-baldintzak hobetzeko eta Pentsio Sistema Publikoa bermatzeko, behar beharrezkoak dira.

Europako beste Herrialdeekin alderatuz eta lanbide arteko gutxiengo soldata, 12 hilabetetan jasotakoa, azpimarratzekoa da 15 herrialdeetako Europar Batasunean, lanbidearteko gutxiengo soldata ezarrita daukatenen 10 herrialdeetako

batezbestekoa 1389€ dela, Espainiar Estatukoa 1050€koa da (900€ko 14 ordainketa). 2019ko lanbide arteko soldata (12 ordainketa):

Alemanian 1.557€, Belgika 1.593, Frantzia 1.521, Erresma Batua 1.453, Irlanda 1.656, Holanda 1.615, Luxemburgo 2.071, Portugal 700, Grecia 683.

EAEEn eta Nafarroan 2018ko batezbesteko soldata, urtean, (27.431€ eta 25.967€ ziren, hurrenez hurren), soldata horien %60a, 1371€ eta 1298€ suposatzen dute, EAerako eta Nafarroarako.

6.- GIZON ETA EMAKUMEEN SOLDATA ETA PENTSIONEN ARTEKO ARRAKALAK GAINDITU.

6.1) Lan berdinari, soldata berdina dagokio. Neurri eragingarriak aldarrikatzen ditugu, emakumek lanpostu kualifikatuenetan eta ekonomia-arlo guztietan lan egin ahal dezaten. Horrekin batera eskatzen dugu, bizitza laborala eta familiarteko bizitza uztartuko dituen politika eraginkorra indarrean jartzea eta aldi berean, emakumeari kalitateko lanpostuak betetzeko aukera emango diona.

6.2) ALARGUNTZA PENTSIONA % 100€koa

Berdintasunaren aldeko garai honetan, bidezkoa iruditzen zaigu, famili batean edo elkar bizitza unitatean, pentsioa jasotzen duen pertsona hiltzen denean, bizirik geratzen denak, hildakoaren pentsio osoa jasotzea beharko lukeela.

Horrela gaindituko genuke, behingoz, urtetan eta urtetan egin den injustizia, bereziki kotizatu ezinean izan diren emakumeekin.

Hildakoa, beste pertsona bada, pentsioa jasotzen duenak, osoa jasotzen jarraituko du. Gauzak horrela, **hildakoa, pentsioduna bada, bere bikoteak, pentsio osoa jaso beharko luke.** Horrela onartuko litzateke, **alargun geratu den pertsona horrekin gehienetan emakumea, hildakoaren pentsioarekin zerikusi zuzena izan duela, etxeko lanetan aritutakoa izan delako.**

Badaude beste kasu batzuk. Egoera anitzak eta ez berdinak daude, beraz, aztertu, sailkatu eta erantzun ezberdinak merezi dituzte. Horrela gertatzen da lan-errenta edo kapital errentako alarguntzarekin.

Orokorrean, **injustizia handia dago** arazo horren baitan: **historikoa baina indarrean** dagoena. Egoera honetan, **alargun geratzen denak, hildakoak jasotzen zuen pentsio osoa jaso beharko lukeela deritzogu**, izan ere pentsio hori bien diru-sarrerekin sortua izan baita da.

Ondorioz, Bizkaiko Pentsiodunen Mugimendutik aldarrikatzen dugu alarguntza pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den %60ko oinarri erregulatzaila, %100era

igotzea. Halaber eskatzen dugu, alarguntza pentsio jasotzeko bete beharreko baldintzak berraztertzea. Aipagarria da indarrean dauden baldintzekin, soilik %16ko alarguntza-pentsioei ezartzen zaiela %60ko oinarri erregulatuak.

7.- ZIGORRIK GABEKO AURREJUBILAZIOA

Aldarrikatzen dugu, baldin eta 40 urte kotizatu badira. Langilearen borondatearen aurka egiten diren aurrejubilazio kasuetan. 40 urte edo gehiago kotizatuak baldin badituzte, ez zaie portzentaje murriztailerik ezarriko.

8.- KOPAGOA ETA “MEDIKAMENTAZOA” DEUSEZTATZEA EXIJITZEN DUGU.

Osasun Sistema Publikoak, definizioz, kalitateko eta dohaineko zerbitzua bermatu behar du. Ezin dugu ahaztu gaurko Osasun Sistema hau, gizarteak ordaindutakoa dela, bere inpostu eta Seguritate Sozialari ordaindutako soldata partearekin.

Ezin dugu ahaztu, krisiarekin, austeritate politika ezarri zigutela. Horrek, murrizketak ekarri zituen, besteak beste, menpekotasunean eta osasun arloan. Ondorio horieri aurre egiteko pentsiodunok exijitzen dugu:

Zaintza eta babes lanak Zerbitzu Giza-Sanitario Publikoaren bitartez eskaintzea. Zerbitzu hori EAE eta Nafarroako Osasun Sistema barruan kokatuko da

Hori dela eta aldarrikatzen dugu, aurrekontu publikoekin finantzatuko den Zerbitzu SOZIO-SANITARIO Publikoaren sare unibertsala sortzea. Horrek ahalmenu beharko luke gaur egun, orokorrean, emakumeek egiten dituzten zaintza lanak, guztion artean egin ahal izatea. Gaur egun dauden hutsuneak ez dira kasualitatea, Zerbitzu Publikoen pribatizazioaren ondorio dira. Menpekotasuna dutenentzat eta nagusientzat, orokorrean, publikoak izan beharko lirakekeen Zerbitzuak, enpresa pribatuen negozio oparoetan bihurtu dira, menpekotasuna dutenentzat eta nagusientzat, orokorrean.

Kopagoa, OSASUN-ZERBITZUAREN gastu murrizketa den heinean, desagertzea eskatzen dugu. Berdin gertatzen da “medikamentazioa” deritzonarekin. Izugarritzko kaltea egiten die gaixotasun kronikoak dituzten milaka pertsona nagusiei, izan ere, egunero hartu behar dituzten botikak, bere osotasunean ordaindu behar baitituzte (450 botika).

Egia da EAEn, 18.000€tik azpiko pentsioei, botiketako dirua itzuli egiten zaiela baina guk eskatzen duguna da, neurri hori, modu automatikoan egitea.

9.- POBREZIA ENERGETIKOA EZABATZEA.

Estatu Espainiarrak, Europar Batasuneko energia elektrikoaren preziorik garestiena dauka etxebizitzentzat eta horrez gain, azken urte hauetan gehien igo duena izan da.

2018ko irailak 19a izan zen, etxeetako argindarraren prezioa gailurra jo zuena: 75,93€ orduko megawatioa. 2018ko abuzturaino, argindarraren faktura %11 igo zen eta azken 15 urtetan %85,7.

Pobrezia energetikoak, bereziki, pentsionistengan du eragin zuzena eta hauen artean emakumeak dira kaltetuenak. Estatuko %20 eta %30 arteko etxeetan arazoak dituzte, gutxiengo tenperatura egokia mantentzeko. Hori gainditze aldera, hartutako neurri bakarra, bonu energetikoa igotzea izan da. Neurri horrekin lortu den bakarra, prezio igoeraren %16a konpentsatzea izan da. Estatuko enpresa elektrikoek, azken urteetan, 18.000 milioi euroko laguntza jaso ditu. Aldi berean enpresa horiek 2018ko lehen trimestrean, 1530 milioiko irabaziak izan dituzte.

Arazoa hau oinarritik konpontzea aldarrikatzen dugu. Energia elektrikoa, ondasun publikotzat aldarrikatzen dugu eta konpainien monopolioari, amaiera jartzea. Ekoizpenaren kontrol publikoa ezartzea, banaketa eta prezioei dagokienez eta gizartearen alde ahulentzat, zerbitzua bermatzea.

10.- GURE PENTSIONEI DAGOZKIEN ERABAKIETAN PATE-HARTZE ZUZENA IZATEA ESKATZEN DUGU.

Interlokuzio propio eta zuzena eskatzen dugu Instituzioekin, pentsio duinen aldeko defentsa egiteko, baita Pentsio Sistema Publikoaren defentsan. Halaber exijitzen dugu pentsionisten presentzia, gure pentsio eta bizitza-baldintzaz antolatzen diren eztabaida eta guneetan, bai Estatu mailan eta nola ez, EAEko, zein, Nafarroakoetan.

Konbentziturik gaude 2018an lortutako garaipen txiki horiek, gure mobilizazioei esker izan direla, gure mugimendu, anitz, zabal eta batuari esker.

Bidea hori dela, sinetsita gaude, beraz pentsiodunen mugimendua indartzen joan behar dugu eta horretarako proposatzen ditugu: Aldarrikapenen inguruan elkartasun indarrak metatzea eta gure oinarritzko helburuak lortzeko, bide estrategikoa elkarrekin gauzatzea, gizartearen beste eragile sozialekin aliantzak landuz, elkarren arteko kolaborazioak eta mobilizazioak bultzatuz, pentsio duinen alde eta defentsan, gazteak, emakumeak, langileak, langabetuak, autonomoak ... bat eginik .

Estatuko pentsionisten mugimenduekin, elkartasun bideak jorratzearen aldekoak gara, mobilizazioetan zein aldarrikapenetan, beti ere, norberaren autonomia errespetatuz.

Hemen aurkeztu ditugun aldaketa sakonak gauzatzeko, gure mobilizazio mailaren ahalmenarekin lotuta doa, baita mugimendu honekiko eragile berrien uztartzearekin.

Helburu hauek lortu arte mobilizatzen jarraituko dugu.

PENSIO PUBLIKO DUINAK PENTSIONISTAK AURRERA!!!